

GURE TXIMINIA

Gure tximinia
kof, kof
ke beltza ahotik dariola,
neguan lanpetuta.

Tximiniaren kea
mundutik zehar dabil,
airean ezkutatzen da,
gugandik aldentzeko.

Gure tximiniak
poza ematen digu
triste gaudenean,
alaitu egiten gaitu
atsekabetuta gaudenean.

Gure tximiniak
pentsatzen laguntzen digu,
bere ondoan eserita
denbora pasatzen da.

Tximiniak oso gutxi daude
baina bere etxean daukana,
inoiz ez da
bakarrik sentituko.

Gure tximinia
lagun ona benetan,
beti gurekin egongo da
zahartu eta hil arte.